



## **ONDORIOEN AGIRIA KANPOAN DIREN EUSKAL GIZATALDEEN VI. MUNDU BATZARRA**

Alemania, Argentina, Australia, Belgika, Brasil, Kanada, Kolonbia, Kuba, Txile, El Salvador, Espainia, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia, Mexiko, Paraguai, Peru, Puerto Rico, Erresuma Batua, Uruguai eta Venezuelako euskal komunitateen ordezkariak, 2015eko urriaren 7 eta 9 bitartean Gasteizen egin zen Kanpoan diren Euskal Gizataldeen VI. Mundu Batzarrean, HONAKO HAU ADOSTEN DUTE:

- Ondorioen agiri hau onartzea
- Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeari helaraztea, 2016-2019 Ekintza Instituzionaleko Lau urteko Plana lantzeko orduan kontuan har dezan, maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Batzarrean parte hartu zuten euskal etxeek eta federazioek idatziz bidali zituzten hura hasi aurretik proposatutako hiru gai multzoei buruzko gogoetak eta iritziak: belaunaldien txandakatzea eta emakumeen eginkizuna; euskal emigrazio berria eta, azkenik, euren eremuetan dauden gainerako diasporekin dituzten harremanak. Gogoeta horiek aztertu ondoren, eta Batzarrean eztabaidatutakoa eta landutakoa txertatu ondoren, 2016-2019 aldirako hartu beharreko neurri multzo hau proposatzen da.

## **a) Harreman egiturei eta sareei buruzko neurriak**

### **A1. Europan proiektu bateratuak bultzatzea eta Euskal Etxeen Europako Federazio bat sortzeko bideragarritasuna aztertzea**

8/1994 Legeak hogeit hamar urtetik gorako indarraldia izan ondoren, kanpoko euskal elkarten mugimenduari Euskal Etxe eta Federazioetan eman zaion bultzada egokia izan da.

Europan, euskal etxe gehiegi ez zegoen eremuan, pertsonen zirkulazio librearen ondorioz, emigratioari modu berri batean erantzuten dioten etxe berriak eta euskal taldeak sortuz joan dira.

Alemania, Belgika, Frantzia, Italia eta Erresuma Batuko ordezkariak borondatea agertu dute proiektu bateratuen garapenaren bitartez euskal etxeen sare bat sortzeko.

### **A.2 Federazioen arteko harremanetan sakontzea**

Federazioen arteko harremanetan sakondu nahi dugu alde bietatik, elkarlanerako gune berriak sortuz esperientzia arrakastatsuen trukea bultzatzeko eta jarduera bateratuak antolatzeko.

### **A3. Aldian behin eskualdeko bilerak egiten jarraitzea eztabaidagune gehiago sortzeko**

Aurreko Lau urteko Planaren barruan egin ziren euskal etxeetako eskualdeko bilerak oso positiboki baloratu dira, kontuan hartuz parte hartzeko eta harremanetarako dinamikak sortzen dituela, Batzarrek (lau urtetik behin) sortzen dituztenak baino sarriagoak. Beste euskal erakunde batzuen jardunbide egokien adibideak har litezke kontuan, aurrekontu murrizta izanik ere, urtero harremanak sustatzen baitituzte geografia eremu hurbilen artean.

### **A4. Euskal Etxeen ordezkarien hautaketa arautzea Aholku Batzordean**

Aholku Batzordean euskal etxeek eta federazioek izango dituzten ordezkariak izendatzeko bozketa arautuko duen arautegi labur bat onartu nahi dugu, prozesua arintzearen. Landu beharreko funtsezko gaiak izango lirateke: ordezkariak eremu geografikoen arabera; ordezkariak izendatzea ordezkari ofizialentzat haiek bileratara joaterik ez dutenean; izendapenak izenezkoa izan behar du edo kargu bidezkoa, bozketa mota.

## **A5. Batzarraren formatua moldatzea parte hartzaileagoa eta dinamikoagoa izan dadin**

Harremanetarako eskari gero eta handiagoari erantzun bat emateko, Eusko Jaurlaritzak aztertu egin beharko luke Batzarreko ordezkari batzorde paraleloetan lan egiteko aukera eskaintzea, ordezkari guztiek hitzaldi nagusietara entzule gisa ezinbestean joan behar izan gabe, edo beste eredu bat bilatu parte hartzaileen interes arlo guztiak gogobetetzeko. Halaber, komenigarria litzateke behar adinako denboraz edukien eta programaren berri izatea, eta batzar aurreko jardunaldiak erabiltzea parte hartzaile berriei metodologia ezagutzera emateko. Parte hartzaileek, bestetik, edukiak eskaintzeko duten erantzukizuna bere gain hartu beharko lukete.

## **A6. Egungo euskal kultur adierazpenak babestea eta zabaltzea**

Euskal komunitate osoan sortu diren kultur proposamen berriak Diasporan ikusteko eran jarri nahi ditugu.

### **B) Gazteriari eta emigratio berriari buruzko neurriak**

#### **B1. Erabaki organoetan belaunaldien arteko bizikidetza sustatzea eta geografia eremu desberdinetako euskal etxeetako gazteen artean esperientziak trukitzea**

Bizikidetza sustatu nahi dugu belaunaldien artean, belaunaldi beteranoen esperientziak eta belaunaldi berriak elkartzeko moduan, erantzukizun berriak beren gain hartzeko gogoz baitaude gazteak.

#### **B2. Gazteriarekin lan egiten duten beste erakunde batzuen adibidea kontuan hartzea, jardueren eskaintza zabaltzeko**

Euskal etxeek publiko gazte berriak erakartzeko programazioak izan behar dituzte, arreta berezia eskainiz inguruko beste erakunde batzuetan aurrera eramanez diren jardunbide egokiei.

#### **B3. Euskal emigrante berriak euskal etxeetan sartzeko ekintzak egitea, harrera erakunde gisa jokatzuz**

Euskal etxeek ekintzak egin nahi dituzte euskal emigrante berriak beren erakundeetan sar daitezen, maila orotan harreman sareak zabalduz.

Gaur egun, emigrante berriak harrera plataformen beharrez egon daitezke, non kidetasun harremanek integratio errazago bat eskainiko dieten harrera herrialdean. Harrera sistema horrek ez du zertan leku fisiko batean oinarritu, ez eta topaketa fisiko batean ere, plataforma edo sare informatikoen bitartez egin baitaiteke.

Komenigarria litzateke ere euskal gazte emigratu talentudunen eta euskal etxeen saretik kanpo daudenen jarraipen bat egitea, euskal etxeek harreman eta harrera gune gisa joka dezaten bultzatuz. Horretarako, beharrezkoa da emigranteak identifikatu eta elkartzea, haien mugikortasuna bideratu duten erakundeen bitartez.

#### **B4. Euskal komunitate globalean egiten diren prestakuntza ekintzak zabaltzea**

Mundu mailako euskal hezkuntza sare bat sortzeko eskaria ez da ikasketa arautu eta homologatu gisa planteatzen, baizik eta euskal etxe eta federazioetan egiten diren prestakuntzako ekintza gisa, jakitun izanik etorkizuneko biziraupena, betiere, haiek belaunaldi berriei beren jatorri eta kulturari buruz eskain diezaieketen ezagutza mailaren mende dagoela.

#### **B5. Emigrazioaren gaia txertatzea hezkuntza curriculumetan**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin dauden harremanak sendotu beharko lirateke, Bigarren Hezkuntzan, euskal kulturari buruzko edukietan, emigrazioaren gaia txertatzen laguntzeko eta kanpoan diren euskal gizataldeei buruzko epigrafe osatuago bat eransten ahalegintzeko.

### **C) Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzako egitasmoei buruzko neurriak**

#### **C1. Diru-laguntzak euskal etxeentzat: aurrekontu zuzkidura eta gehienez esleitu daitekeen muga berreskuratzea, eskura dagoen aurrekontuaren arabera, eta izapidetza arintzea**

Zuzendaritzari eskatzen diogu ahalegin guztiak egin ditzala indarrean dagoen araudian ezarritako epeak beteko direla bermatzeko.

#### **C2. Behar gorrietarako laguntzak: jarraitutasuna eta egitasmoa indartzea**

Gizarte laguntza mota honetan izan den esperientziak erakutsi du -aurrekontu zuzkidura mantendu duena krisi ekonomikoa izan arren- hobekuntzarako arloak egon daitezkeela.

#### **C3. Gaztemundu: egitasmoa indartzea eta prestakuntza arloak definitzea**

Egitasmo honetan parte hartuz izaten du gazteriak euskal etxeekin lotzeko biderik garrantzitsuena; ondorioz, egitasmoa indartu nahi dugu ahalik eta gazte kopuru handienari aukera hori eskaintzeko. Gai hauek proposatzen dira:

- 2016: Euskal gastronomia
- 2017: Euskal musika tradizionala
- 2018: Euskal dantzak
- 2019: Kultur erakundeen kudeaketa

Historia, kultura eta euskarari buruzko edizio guztiek komuna duten sarrera gehigarri batekin.

### **D) Beste neurri batzuk**

## **D1. Euskararen irakaskuntza bultzatzea, bereziki txikientzat, euskal etxeetan**

Euskara identifikaziorako elementu nagusi bat da euskal komunitate globalarentzat. Ikaskuntza eta praktika bermatu behar dira, ez soilik "Euskara Munduan" egitasmoaren bitartez, baizik eta txikientzat landutako hezkuntza ekintzen bitartez eta kanpoan euskara indartu eta hedatzeko beste ekimen batzuen bitartez.

## **D2. Jardunbide egokiak partekatzea, autofinantzaketa arloan eskualdeetako bilerak baliatuz**

Beharrezkoa da gogoeta bat egitea euskal etheen eta federazioen autofinantzaketari buruz; beharrezkoa da gai honi heltzea euskal etheen konpromiso orokor baten bitartez. Konpromiso hori eskualdekako topaketetan gauzatu liteke.

## **D3. Euskal jatorria ezagutzera ematea abizenen azterketaren bitartez**

Emigrazioaren familia eta gizatalde historiak baloratuz jarraitu nahi dugu hainbat ekimen eta egitasmoren bitartez, baita onomastika edo genealogiaren ikuspegitik burutu daitezkeen ekintzen bitartez ere, Euskadiri buruz interesa duten pertsonak modu zuzenean erakartzeko.

## **D4. Genero ikuspegia bultzatzea euskal etxeetako ardatz egituratzaile gisa**

Euskal etheen sorkuntzan eta historian emakumeek izan duten balio historikoa aitortu eta bultzatzea, haien lana ikusaraztea eta belaunaldi berriei eta migrazio korrante berriei egiten dieten kultur transmisioa baloratzea.

## **D5. Botoa emateko eskubidearentzat egun dauden oztopoen berri ematea dagokien instantziei**

Eusko Jaurlaritzak eskumena duten instantziei jakinaraz diezaiela zer nolako kezka dagoen diasporan boto erregutuaren sistemaren bitartez botoa emateak duen zailtasunen inguruan.

## **D6. Harremanak tokiko beste diaspora batzuekin**

Euskal etxeetako jardueren ardatz gisa euskal kulturaren inguruko jarduerak bultzatu eta balioestea, baita harrera herrialdeetan errotuta dauden beste diaspora batzuekiko harremanak ere.

## **D7. .eus domeinua bultzatzea**

Munduko euskal elkarte eta erakundeen artean .eus domeinuaren erabilera sustatzea.

## **D8. Ikasketak bultzatzea on-line unibertsitate ikastaroen bitartez**

Euskal unibertsitateek on-line eskaintzen dituzten ikastaroen berri ematea, kanpoan den euskal komunitateko kideek haiek egiteko aukera izan dezaten.

## **D9. Euskal etxeen fundazio balioak**

Euskal etxeek konpromisoa hartzen dute lehendabiziko euskal etxeen oinarri izan ziren fundazio balioak bultzatzen jarraitzeko: besteak beste, euskal nortasuna, elkarrenganako laguntza eta elkartasuna, kanpoan diren euskaldunen erreferentzia izaten jarrai dezagun.